

Oraindik ere



UXUE APAOLAZA LARREA



PAULA ESTÉVEZ

Tira, ea lehenbailehen bukatzen duen; ez dakit zerbait egin behar nukeen kontua azkartzeko. Barrabilak, uzkia, titiburuak...? Zer gustatuko zaio honi?”. Puntu horretan, ligatzeak eskatzen duen espektatiba inbertsio osoa agortuta dago, eta erreklamazio gutun bat bidaltzeko aukeraz pentsatzen ari zara. Amaitzen duenean, sexu-harreman oso bat izan duzu, eta haserre zaude (edo aspertuta). Osoa. Alegia, sartu egin dizula.

Sarketa da beti garrantzitsua, baita epailearen aurrean ere. Bortxatzen bazaituzte ere (eta bizirik ateratzeko bezain lotsagabea izan bazara), sarketek neurtuko dute delituaren larritasuna. Berriki, Laura Freixasen erantzun transfoetako batean ere horixe irakurri zenuen: baietz, transexualak ere bortxa ditzaketela, baina ez direla, ondorioz, haurdun geldituko. Beraz, zakilkatu egin behar zaituzte (eta ernaltzeko ahalmena eduki). Eta abortua libre eta eroso den herri honetan (ez?), haurdun gera zaitezkeen edo ez izango da larritasunaren atalasea (edo atalaseetako bat).

Baina itzul gaitezen plazer ukatuetara. Delitua delituago egiten duen hori bera baita gozamenaren puntu goren-tzat jotzen dena. Serio entzun duzu arazoa bagina orgasmoeragileak ez ditu-

zuenok zenutela. Beraz, bagina omen zen zure orgasmoen iturria. Iraganeko aditz denbora erabiltzea optimismo ergel bat da kasu honetan. Izan ere, bere osoa hasi denean (sexu harreman osoa), amaitzen da zure partziala, oso maiz, gaur egun ere. Zuri emango zaizun guztiari “aurretikoak” edo horrelako zerbait esaten diote. Batzuetan konprobatu ere egiten dute behatzaz ea nahikoa lubrifikatuta zauden, edo lan pixka bat gehiago egin behar duten. Hortik aurrera, ekin sexu-harremana osatzeari, osotasunera irits dadin.

Primeran ikasi zenuen preserbatiboak jartzen, punta hatzez zanpatuta ainerik ez geratzeko eta bere sexu-harreman osoa zure haurdunaldi edo auskalo zer gaixotasun izan ez dadin. Eta inoiz ezingo duzu pasioaren besoe-tan itsu murgildu, noski, zuk gogoratu beharko duzulako gomatoxa jartzeaz. Eta sartu gabe ez da geldituko, beraz, adi ibili, denbora guztian, ez baitakizu bat-batean eta aurreabisu nabarmenik gabe gertatuko den. Jarri ondoren ere, erne: sarketa onartu duzunez, preserbatiboa kentzea ere bai, dirudienez. Hori ez omen da bortxaketa bat. Zer inportakoa zaio horri zure orgasmoa?

Kontuz, baita ere, umea erditu ondorengo sexu-harremanekin, esan dizu

ginekologoak. “Osoekin?”, ez dizute, noski, ironia ulertuko. “Kontuz, esan nahi duzu, sarketekin?”. Eta idiota zuk eman-go duzu. Birjinitatea noiz galdu duzun galdetu dizuten bakoitzean bezala. “Benetan ez duzu ulertzen zer galdetzen ari garen?”. Eta ulertzen duzu, noski: ulertzen duzu “birjinitate”, eta ulertzen duzu “galdu” hori. Eta horregatik beragatik ez duzu ulertzen. “Kontzienteki, zazpi bat urte nituela, burukoarekin”, “Hemezortzi bat hilabete nituela, nire buruarekin, pelutxezko hartatzeko bat begira nuela”... Baina noiz sartu zizuten jakin nahi dute.

Eta partikularitasunak partikularitasun, gibela oin-azpian dagoela sine-tsi edo ez, anatomiar jaramon eginez gero, oina ez, eta bagina ere ez: klitoria, *señores*, klitoria (ez zinen zu oker zeundena). Bestela antzeztu egingo dugu, egin dugu, egiten dugu (ez beti parekoa animatzeko, hurrengo eginkizunekin lehenbailehen hasteko baizik), eta espektatibak lurperatu. Berrogeiak pasata dituzu, ez zenukeen pentsatuko askoz urte gutxiago eta pazientzia handiagoa zenituen garaian, adin honetan zenbait gauza azaldu beharko zenituenik. Heterosexualitatea oso gaizki dago, ordea: aspaldi ikasi zenuen eskuzabaltasuna eta sumisia bereizten, eta orain, asper-tu egiten zara. ●